

Katedrala Fundazioa lanean ari da Turismo Enpresa Adimendunaren UNE Araua eskuratzeko

Hiru lurralde historikoetako 25 erakunde, tartean Santa Maria Katedrala Fundazioa, diagnostiko-fasean parte hartzen ari dira, Turismo Enpresa Adimendunaren (TEA) UNE 178510 Araua ezartzeko proiektuaren bigarren edizioan.

Plana Turismoaren Euskal Agentzia (Basquetour) garatzen ari da, eta horren bidez turismo-eredu modernoagoa, eraginkorragoa, adimentsuagoa, iraunkorragoa, irisgarriagoa, berritzaileagoa eta lehiakorragoa lortu nahi da.

Basquetourrekoek nabarmendu duten moduan, diagnostiko-fasea funtsezkoa da UNE 178510 Araua ezartzeko prozesuan. Aurrez aurreko bisitak eginez, aholkulari espezializatuek zehatz-mehatz aztertzen dituzte erakundearen benetako egoera eta arauaren baldintzekin duen lerrotze-maila. Lortutako datuei esker, ondoren, ekintza-plan bat egin daiteke barne-kudeaketa indartzeko edo erabakiak hobeto hartzeko, beste parametro batzuen artean.



Katedrala Fundazioak Turismo Enpresa Adimendun gisa izendatzeko ziurtagiria lortu nahi du, eta horretarako lanean ari da. Horrela, berrikuntzaren, ingurunea

zaintzearen, irisgarritasunaren eta teknologien erabileraren aldeko apustua egiten du, bisitariei kalitate handiagoko turismo-esperientziak eskaintzeko.

MARTXOAN MUSIKA IZANGO DA KATEDRALEAN

Santa Marian bi musika-hitzordu izango dira martxoan. Lehena, Haurren Abesbatza Eguna, martxoaren 15ean, igandean. Kontzertua Arabatxok, Arabako Haur Abesbatzen Federazioak, antolatu du, eta honako haiek hartuko dute parte: Olabide Abesbatza, Urkide Abesbatza, Lumturi Abesbatza, Papargorri Abesbatza (Aramaio) eta Kantabil Luis Aranburu.

Informazio gehiago eskuratzeko sartu arabatxo.eus web gunean

Bigarren kontzertua martxoaren 21ean, larunbata, izango da, Antzinako Musikaren Europako Eguna ospatzeko, eta Musikene Sinfonietta Orkestrak emango du, Alfredo Bernardinik, Barrokoan espezialista handitzat jotzen denak, zuzenduta. Topaketa honen programa G. F. Telemanen musikarekin osatuko da: -Suite Fa Maiorren bi tronpa eta orkestrarako-, J. S. Bach -Cantata "Ich habe Genuß" BWV 82- eta G. F. Händel -Water Music Suite Fa Maiorren HWV 348-..

Informazio gehiago eta sarrerak: ama-sma.kulturaraba.eus



Bisita karakterizatua Pilares doktorearekin



Jarduera hau 5 eta 8 urte arteko haurrentzat da, eta katedral bat nola zaindu behar den jakingo dute. Taldearekin batera izango da Pilares doktorea, Santa Mariako ibilbidearen edukia modu atsegin eta ludikoan azaltzeaz arduratzen dena.

Jarduera 75 minutukoa izango da, eta **apirilaren 7an eta 9an egingo da, 17:00etan**. Bisitan, adingabeek bakarrik egon beharko dute, baina haiekin batera joango diren helduek aldi berean egingo den bisita bat egin dezakete. **Prezioa** 6 eurokoa da.

Jarduera honen eta beste batzuen **erreserbak** egiteko sartu www.catedralvitoria.eus web gunera edo deitu 945 255135 telefono-zenbakira.

GASTEIZKO SANTA MARIA KATEDRALEKO LEINUAK: JUAN ALONSO DE GAMIZ

Pertsonaia hori oso lotuta dago aurreko zenbakian deskribaturikoarekin; hots, Martin de Salinasekin, Fernando I.aren enbaxadore kargua Juan Alonso de Gamizi eman baitzion 1539. urtean.

Alonso Ruiz de Gamiz eskribauaren eta Sancha Martinez de Buendiaren semea zen Juan Alonso (1500/6 – 1574), hiru anai-arreben artean gazteena, eta 1506. urtea baino lehen jaioko zen. Izen Eztiaren kaperaren sortzailea izan zen Gasteizko kolegiatan, eta azkenean bertan lurperatu zuten.

Ziurrenik Gaztelako unibertsitatearen batean ikasiko zuen —Salamanca, Valladolid edo Alcalá de Henaresen—, hori ohikoa baitzen Gortean eta administrazioan sustapen soziala bilatzen zuen noblezia txikiaren artean. Bigarren semea zenez eta ez seme zaharrena, ziur prestakuntza erlijiosoa jaso zuela, Karlos V.a enperadorearen kapilaua eta, ondoren, diplomatikoa izateak erakusten duen bezala. Lan diplomatiko hori egiteko, bidaia ugari egin behar izan zituen Europa osoan, 1530eko hamarkadaren hasieratik berrogeita hamarreko hamarkadaren amaierara arte.

Juan Alonso de Gamizen prestakuntza kulturala nabarmena izango zen, haren liburutegia oparoa baitzen. Haren jarduera diplomatikoak hainbat hizkuntza jakitea eta egoera konprometituei aurre egitea eskatzen zuen, Inperioa astintzen zuten gatazketan esku hartu behar izan baitzuen: erlijio-gerrak, turkiarren aurrerapena eta Frantziarekiko etengabeko borrokak. Halaber, Karlos V.a eta Fernando I.a Habsburgtarren arteko harreman iskanbilatsuaren lekuko ere izan zen.

Haren posizio pribilegiatutik, bi iloba Habsburgtarren gortean kokatzea lortu zuen: Alonso de Gamiz eta Pedro de Gamiz. Lehena Maximiliano II.aren idazkari izatera iritsi zen, eta horrek Guezzendorf jaurgoa eman zion. Horren anaia Pedro Maximiliano II.aren emazte Maria enperatrizarren gozogilea eta zaldizaina izan zen, erregeekin tratu oso gertukoa izatea eskatzen zuen kargua, errege-gelak zaindu behar baitzituen. Juan Alonso de Gamizek, zuzenekoak ziren ilobei laguntzeaz gain, haren familiako beste kide batzuentzako ezkontza onuragarriak lortu zituen.

1557an, Karlos V.ari lagundu zion Laredoko portutik (Kantabria) Yusteko monasteriora (Extremadura) bidaia egiten, bertan enperadorea erretiratu egin baitzen Felipe II.a semeari kargua utzi ondoren. 1558an, berriz, Fernando I.ak hala aginduta, azken bidaia egin zuen Vienan eta Herbehereetan barrena Felipe II.arekin elkarriketatzeko. Litekeena da ibilbide horretan Izen Eztiaren erretaula ezaguna erosi izana, Gasteizko kolegiatan sortutako kaperan jartzeko. Kapera hori urte horretan bertan eman zen (1558). Bidaia horren ondoren, Gasteizera itzuli zen, bertako dokumentazioan agertzen baita berriro 1559. urtetik aurrera. Martin de Salinas lehengusuari bezala, bere armetan buru biko arranoa jartzeko pribilegioa eman zion enperadoreak.



Izen Eztiaren erretaularen irudiak, ziurrenik Juan Alonso de Gamizek Flandriatik ekarritakoa 1558. urte inguruan.

Jada Gasteizen geratuta, egoitza egonkor bat bilatu zuen bere zahartzarorako. Gurasoak hiriko goiko aldean bizi izan ziren, Suso etxean, Gasteizko goi mailako gizartea bizi zen lekuan. Jabetzak Montehermoso jauregiaren eta Eskoriatza-Eskibel jauregiaren artean zituen. Azkenean, Armentiarra joatea erabaki zuen, hiriko zalapartatik urrun, eta kolegiata zaharraren mugakidea zen etxe bat erosi zuen, berak berreraiki zuena eta oraindik ere kontserbatzen dena. Ondasun guztiekin eta Gasteiz inguruan eskuratu zituenekin, maiorazko boteretsu bat sortu zuen.

(Katedraleko pertsonaiak txostenetik (Fernando r. Bartolome Garcia, 2013) ateratako informazioa).

